



2. jardunaldia: Giza Eskubideak XXI. mendeko hirian

**Hirirako eskubidea:
esperientzia praktikoak eta
ikasitakoak**

Gasteiz, 2021eko abenduak 16 eta 17



OSTEGUNA, 2021EKO ABENDUAK 16

INAUGURAZIOA:

Inaugurazioa Gasteizko Bizikidetza eta Aniztasun zinegotzi **Miren Fernández de Landak** eta Bakearen Kultura Fundazioko presidente **Federico Mayor Zaragozak** egin zuten. Biek azpimarratu zuten bizikidetzak eta aniztasunak toki-eremuan duten garrantzia.

Zinegotziak adierazi zuen toki-eremua dela giza eskubideak baliatzen diren esparrua. Gasteiz diskriminaziorik ezarekin eta inklusioarekin konpromisoa duen hiria da, horren adibide dira hainbat saretan duen parte hartzea eta Udalak Bizikidetza eta Aniztasun Saila izatea. Gainera, berriki amaitu duen Bizikidetza eta Aniztasun Plana ere badu, eta beste plan bat prestatzen ari da.

Federico Mayor Zaragoza, “hirirako eskubidea” kontzeptuaren garrantzia azpimarratu du eta erantsi du hiriak jasangarriak izatea funtsezkoa dela baina, batez ere, inklusiboak eta demokratikoak izan behar dutela. Horrek berekin dakar gizaki bakoitzari balio batzuk aitortzeko beharra, eta horixe da indarraren arrazoiak arrazoiaren indarragatik ordezkatzeko ahalbidetzen duen tresna.

Adierazi du bizikidetza bilatu behar dela, eta ez bakarrik koexistentzia, eta hori pertsonak askatasunean eta erantzukizunean hezten direnean bakarrik egin daitekeela. Heziketa norberaren bizitza zuzentzea da, eta horrek leku bat aurkitu behar du hirian. Horretarako, giza eskubideak praktikan jarri behar dira esparru demokratiko sendo batean.

Teknologia digitalaren garrantzia ere azpimarratu du, herritarrei hitza ematea ahalbidetzen dielako eta, oro har, berdintasunezkoagoa delako duintasunean eta adierazpen-askatasunean. “Orain esan dezakegu geu, herria, garela geure nahia adierazten duena, eta esan dezakegu ahal dugun guztia egingo dugula epe laburrean Garapen Jasangarrirako Helburuak egunerokoan martxan jartzeko eta helmuga berrietara iristeko, gaur egun hain ilunak direnen aurrean”.

Inaugurazioaren bideoa eskuragarri hemen:

[https://www.youtube.com/watch?](https://www.youtube.com/watch?v=kFtpXI54Otw&list=PL3qy2ZNcrIYp92eIUM3RztKR-DfL3T3un&index=1)

[v=kFtpXI54Otw&list=PL3qy2ZNcrIYp92eIUM3RztKR-DfL3T3un&index=1](https://www.youtube.com/watch?v=kFtpXI54Otw&list=PL3qy2ZNcrIYp92eIUM3RztKR-DfL3T3un&index=1)

HIZKETAN: Hirirako eskubidea XXI. mendeko erronken aurrean

Aurkezlea, **Manuela Mesa**, CEIPAZeko zuzendaria eta DEMOSPAZ-UAMeko zuzendarikidea izan da. Jardunaldien programa azaldu du, eta "hirirako eskubideari" eta "giza eskubideen aldeko hiriari" buruzko gogoeta-gune bat izatearen garrantzia adierazi du.

David Bondiak, Bartzelonako Síndic de Greugeseko kideak, eman du lehenengo hitzaldia. Eginiko gogoetan honako ideia hauek azaldu ditu:

Jardunaldietan parte hartu dugun guztiok zorionekoak gara giza eskubideei dagokienez, haiek beteko direla bermatzen diguten bost esparru ditugulako. Nazioarte mailan, Nazio Batuen Erakundea eta haren Batzordeak; Europa-mailan, Europako Kontseilua eta Europar Batasuna; Estatu-mailan, Konstituzioa; autonomia-mailan, autonomia-estatutuak eta haiek garatzeko araudiak, eta udal-mailan, herritarren eskubideak babesten dituzten ordenantza guztiak, lehen arau lotesle batek babesten dituen, hau da, Hiriko Giza Eskubideak Babesteko Europako Gutuna (Saint-Denisen onartua 2000. urteko maiatzean).

Bermeak izan arren, ezjakintasunaren arazoa daukagu, batez ere tokiko mailan, eta horixe da, hain zuzen ere, eskubide horiek gehien bermatzen dituen maila. Hiru kontzeptuz hitz egin du:

- Hurbiltasuneko giza eskubideak. Horiek egunerokotasunarekin, pertsonen oinarrizko beharrekin eta bizitza duinak bizitzeko eskubidearekin lotzen dira. Pandemia eta hark ekarri dituen ondorioak aipatu ditu: beldurra, ziurgabetasuna, eta abar, eta nola horrek agerian jarri dituen dauden desparekotasunak eta segurtasunaren mesedetan eskubideak galtzeko (edo lagatzeko) erronkari aurre egitera behartu gaituen.
- Eskubide gehiago eta berriak ezartzea. Egungo egoeran, giza eskubideak indartu egin behar dira, ez ahuldu, eta, horretarako, beharrezkoa da subsidiariorotasun-printzipioa aldarrikatzea. Hau da, hiria errealitate exekutiboa izan da beti, baina orain bermatzailea izan behar du. Hiriek aurrerapauso bat eman beharko dute egungo arazoei erantzuteko
- Hurbiltasuneko demokrazia. Edo, bestela esanda, ordezkatzailea ez ezik, berdintasunezkoa, solidarioa, bermatzailea eta abar izan behar du. Hurbiltasuneko demokrazia, beraz, balio-sistema bat da, ez bakarrik erregimen politiko bat. Printzipio horri esker, gainera, udalei eskatu egin diezaiekegula pentsa dezakegu.

- Gure hirietan kolektibo "ahulduak" aurkitzen ditugu, ez ahulak. Horrek esan nahi du, beraz, pertsona batzuek eskubide gehiago dituztela (edo izan beharko lituzketela), egoera okerragoetatik datozelako
- Sektoreartekotasunaren kontzeptuaz hitz egin du. Pertsona guztiei ezin zaizkie neurri eta politika publiko berberak aplikatu, denak ez garelako berdinak eta ez garelako baldintza berberetatik abiatzen.

Azkenik, XXI. menderako 12 erronka identifikatu ditu:

- Demokraziaren eta giza eskubideen arteko beharrezko interakzioa. Demokrazia balio-sistema gisa. Kulturartekotasunaren kontzeptua sartu behar da, kultura-aniztasunarenaren orde. Aniztasunak izan behar du gure hirietako aberastasuna. Bideratu eta eguneroko elkarbizitzarako arau bihurtu behar da. Identitatearekin lotuta, denbora galtzen dugu identitate bakar baten bila, aniztasunaren aberastasuna aintzatesteko identitate anitzen aberastasuna ikusi behar dugu.
- Nahitaezko harreman bertikala toki-administrazioaren eta giza eskubideen artean. Toki-administrazioak funtsezko zeregina du, baina beste kontzeptu batzuk ere aztertu behar dira, hala nola herritartasuna, askotan, gaur egun, modu baztertzailan erabiltzen dena. Herritarren eta erakundeen arteko harreman bertikala aztertzea. Administrazioak bermatu egiten du, baina ez du eskubideak emateko ahalmenik. Beraz, administrazioaren kontzeptua birformulatu behar da.
- Hurbiltasuneko eskubideak urratzea, eginez eta ez-eginez. Ez-egite bidezko eskubideen urratzeak dakarren arazoa azpimarratu du; izan ere, administrazioek ez dituztenean bermatzen herritarren bizi-proiektuak eta lan-arloko proiektuak egitearekin lotutako oinarrizko eskubideak.
- Konparazioak versus jardunbide egokiak. Ikastearen garrantzia konparazioaren eta jardunbide egokien bilaketaren bitartez.
- Ez babestea beste hiri batzuetan gertatzen diren urraketak.
- Errealitate berriek eskubide berriak dakartzate. Giza eskubideetan ez geratzearen eta hirietako errealitate berrira egokitzearen alde egin du. Eskubide berriak aldarrikatzea: energiarako eskubidea, adibidez, gure bizitza oinarrizko zerbitzu horien mende dagoelako, eta egiturazko arazo bat dugulako, zerbitzu horiek erakunde pribatuen mende baitaude. Zerbitzu publiko horiek berreskuratu behar dira.

- Urraketak errotik desagerrarazteko lan egitea. Beti zigortu izan dira, baina horrek esan nahi du urraketa bat egon dela. Hezkuntzaren tresna dugu. Eskoletan lan egin behar da.
- Giza eskubideak errespetatzea: ez dagokie agintariei bakarrik. Herritarrok ez gara eskubideen jabe bakarrik, erantzukizunen titular gisa ulertu behar ditugu geure buruak eta horiekin bat eginik jokatu. Urraketa asko erantzukizunen titularrek egiten dituzte. Hemen funtsezko zeregina du giza eskubideen jarraipenean parte hartzeak. Parte hartzen ez duten kolektiboek parte har dezaten lortu behar da, zergatik parte hartzen ez duten aztertu behar da eta eskubideak elkarri lotu behar zaizkio.
- Kontuz ibili behar dugu eta ez ditugu eztabaida faltsuak batu behar giza eskubideen arloan. Adibidez, askatasunaren eta segurtasunaren artean. Hiri seguruaren ideiaurrean, "giza eskubideen arloan" gehitzea proposatu du.
- Giza eskubideei buruzko ikuspegi holistikoa izatea, zatiezinak baitira, banakakoak, baina izaera kolektiboko ondasunak defendatzen dituzte.
- Giza eskubide baten dimentsioak. Udal-eremuan, noiz ari da urratzen eta noiz ez? Eskubide bat bermatzeko, eskubide hori osatzen duten 6 dimentsioak bermatu behar dira.
- Hurbiltasuneko giza eskubideen merkantilizazioa. Eskubideen administrazioa beti izango da defizitarioa. Giza eskubideak "desmerkantilizatu" behar dira, ez dira galerak, aukerak baizik, eta kostuaren arabera izan beharrean, premien arabera ezarri behar dira. Horrela lortzen da hiri justuagoak izatea.

Hitzaldi osoaren bideoa hemen dago eskuragarri:

[https://www.youtube.com/watch?](https://www.youtube.com/watch?v=5UYSRMjB5uk&list=PL3qy2ZNcrIYp92eIUM3RztKR-DfL3T3un&index=2)

[v=5UYSRMjB5uk&list=PL3qy2ZNcrIYp92eIUM3RztKR-DfL3T3un&index=2](https://www.youtube.com/watch?v=5UYSRMjB5uk&list=PL3qy2ZNcrIYp92eIUM3RztKR-DfL3T3un&index=2)

OSTIRALA, 2021KO ABENDUAK 17

Bideoen proiektzioa eta aurreko jardunaldiaren laburpena

Manuela Mesa aurreko egunari buruzko laburpen txiki bat egin du eta kontzeptu nagusietako batzuk aipatu ditu: hurbiltasuneko eskubideak, eskubide berriak eta toki-erakundearen zereginaren garrantzia, eta giza eskubideen urraketa ez-egiteagatik.

Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin egindako ikus-entzunezko lau kapsula aurkeztu ditu, jardunaldietako gaietako batzuk barne hartzen dituztenak:

- Bizikidetza eta aniztasuna:
<https://www.youtube.com/watch?v=tK9G6wXH6oY&t=1s>
- Gorroto-diskurtsoak:
<https://www.youtube.com/watch?v=90aGqz54Rzc&t=5s>
- Aniztasunaren kudeaketa positiboa:
<https://www.youtube.com/watch?v=xW5Dk10X0lk>
- Hirirako eskubidea:
<https://www.youtube.com/watch?v=PoZXM9SIFx8>

ELKARRIZKETA-MAHAIA: Bizikidetza eta aniztasuna: Nola gauzatu?

Elena Boschierok, DEMOSPAZ-UAM eta CEIPAZeko ikertzaileak elkarrizketa-mahaiari ongietorria eman, hizlariak aurkeztu eta haien hitzaldiei bide eman die.

Maidar Maraña, Baketik-eko zuzendaria

Erakunde publikoen artean aniztasun-gaiak lantzeko joera nabarmendu du, nahiz eta ez duten beti uste gizartea egituratzen duen edo eskubideen ikuspegitik lantzen duten zerbait denik. Hitzaldian aipaturiko funtsezko ideien artean:

- Aniztasuna gizartearen berezko zerbait da, ez da salbuespena.
- Desberdintasunaz (bestea) gain, desparekotasunei ere erreparatu behar zaie.
- Talde espezifikotan eta gizarte-babesean oinarritutako ikuspegia gainditu.
- Arreta deitzen gaituen horretan jarri: aniztasunaren eta diskriminazioaren arteko loturan (botere-egiturekin zerikusia duena).
- Espazioak despribilegiatu.
- Desberdintasunak areagotzeko joera hautsi behar da.
- Prozesuaren dimentsioa hartu behar da kontuan: ekintzak ez bultzatzea epe laburrean soilik.
- Ahots guztiei eman behar zaie lekua: ertzetatik zeharkakotasunera igaro behar dugu (politika publikoaren erdigunera), eta intersektionalitatea kontuan hartu.

Carlos Giménez, DEMOSPAZ-UAMeko zuzendaria

Aurreko hitzaldiaren ekarpen batzuk jaso, eta arreta erronka batean jarri du: nola eraman praktikara aniztasunaren kudeaketa positiboa. Hitzaldiaren funtsezko ideiak:

- Praxiaren nozioa teorikoki eta etikoki oinarrituko du.
- Ezin gara koexistentziarekin soilik konformatu (baliotsua da, baina ez da nahikoa, ez baitu harremana barnean hartzen), eta etsaitasuna gainditu behar da.
- Bizikidetzaren Plan batek nahitaez gainditu behar du edozein indarkeria-mota (zuzenak, egiturazkoak eta ideologikoak/sinbolikoak).
- Elkarbizitza honelako adjektiboekin lagundu behar da: 1) kulturartekoa, 2) herritarra, 3) demokratikoa.
- Arreta komuna den horretan jarri behar da eta "espazio inprobableak" sustatu (Lederach) normalean topo egiten ez duten eragileen artean.
- Arreta prozesuan jarri, proiektu bat baino askoz eraldatzaileagoa baita.
- Aldaketaren teoria:
 - Arlo komunitarioa indartzea eta espazio tekniko-sozialak sortzea.
 - Politiken integraltasuna.
 - Arauak eta erakundeak egokitzea.
 - Udal-espazioetan desberdintasunak txertatzea.
 - Bakearen kultura eta GJH16 delakoa udal-mailan ezartzea.

Bideo-proiektzioaren eta elkarrizketa-mahaiaren bideoa hemen eskuragarri: <https://www.youtube.com/watch?v=FFV07oScqTo&list=PL3qy2ZNcrIYp92elUM3RztKR-DfL3T3un&index=3>

MAHAI-INGURUA: Hiri inklusiboak eraikitzea: Herritarren parte-hartzearen garrantzia

Juan Carlos Alonso Quilchanok, Gasteizko Udaleko Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuko buruak, bi parte-hartzaileak aurkeztu ditu, eta haien hitzaldiei bide eman die. Ideia hauek nabarmendu zituzten:

Lorena Ruiz. Madrilgo Erkidegoko herritarren laborategien sarea

- Bitartekaritza entzute gisa eta testuinguruan zer egiten dugun behatzea.
- Lehendik dauden egiturak bilatzea (merkatuak, plazak, etab.).
- Hiritar guztiak, hiritar izate hutsagatik, adituak gara hirian.
- MediaLab Pradon egindako herritartasun-laborategiak egiteko prozesua azaldu du, tokia aukeratzen denetik proiektuen deialdia egiten den arte eta ondoren gauzatzen den arte.
- Nabarmendu du elkar ezagutzen ez zuten pertsonak elkarrekin bizitzen eta elkarrekin lan egiten ikasten hasten direla. Elkarrekin topo egiteak berak plazer bat sortzen du bere baitan.
- Parte hartzeko iragazkirik ez egotearen garrantzia azaldu eta azpimarratu du; interesa duten pertsonak parte har dezakete.

- Elkarbizitzarako eta elkarrengandik ikasteko prozesua da eta, batez ere, prozesu ireki eta malgu bat, non ideiak aldatzen eta kolektibizatzen joaten diren.
- Aurreko mahaiaren prozesuaren ideia gogoan, agian "ez dugu ezer eraldatuko, baina pitzadurak irekiko ditugu", esan du.
- Horrelako ekintzak egiteko baliabideak eta zilegitasun politikoa behar direla defendatu du.
- Azkenik, esan du giza eskubideetan pentsatzen dugunean txikian pentsatu behar dugula, egunerokoan.

Susana Moliner. Grigri Pixel proiektua.

- Proiektua aurkeztu eta harreman-espazio horien eraikuntzaz hitz egin du: nola hiriak abegitsuak eta erosoak izan daitezkeen eta nola ireki gobernantzaren gaia
- Aipatu du "grigri" hitzak kutun babesle bati egiten diola erreferentzia Afrikan. Proiektuaren helburuak azaldu ditu: esperientziak, espazioak, egiteko moduak eta komunitateak konektatzea proposatu du, horretarako grigriak edo kutun kolektiboak eta objektu magikoak eginez; elkarrekin dugun bizitza suspertzeko gaitasuna duten objektuak, kolektiboaren sormen- eta sendatze-ahalmenari esker.
- Horretarako, Afrikako hainbat herrialdetako jendearekin lan egiten dute (komisario kulturalak), eta "alderantzizko lankidetzak" delakoaren ideia aplikatzen dute.
- Grigri Pixelek beste iruditeria batzuk txertatu nahi ditu, beste latitude batzuetatik, tratu txarrak jasotzen dituen geografia bateko, hau da, jatorri afrikarreko aktore, sortzaile eta eragile kulturaleri ikusgarritasuna emateko.
- "Objektu magikoak" eraikiz, geure buruari begiratzeko modu berriak sortzen dituztela esaten digute.
- Atzerriko jatorriko jendeari ahotsa ematearen garrantzia azpimarratu du
- Abegikortasunaren kontzeptua aipatu du eta honako ikaskuntza hauek eskaini ditu:
 1. Abegitsu izatea funtsezkoa da, eta umiltasun-egoeran jartzea ere bai.
 2. Errekonozimendu- eta erreparazio-guneak daude
 3. Abegikortasunak geure hiriarri buruz galde egiten digu
 4. Garrantzitsuena galderak partekatzea da, eta ez bakarrik erantzunak
 5. Ez dena ulertzea eta izendatzea: misterioa, magikoa, esaten ez dena beste potentzialtasun bat izan daiteke.
 6. Prozesuari gehitzea tailerretan sartzen diren pertsonen jakintzak gehituta (sukaldeak, adibidez) eta lehendik dagoena jasotzea.
 7. Garrantzitsuena ez da nongoa zaren, une horretan non zauden baizik.
 8. Bizikidetzak erraztea, zeharkako identitateak sortzeko.
 9. Hiriarekin elkarrizketa bizia izatea.

Mahai-inguruaren bideoa eskuragarri hemen:

[https://www.youtube.com/watch?](https://www.youtube.com/watch?v=BJfEDP5i95I&list=PL3qy2ZNcrIYp92eUM3RztKR-DfL3T3un&index=4)

[v=BJfEDP5i95I&list=PL3qy2ZNcrIYp92eUM3RztKR-DfL3T3un&index=4](https://www.youtube.com/watch?v=BJfEDP5i95I&list=PL3qy2ZNcrIYp92eUM3RztKR-DfL3T3un&index=4)

2. MAHAI-INGURUA: Diskriminazioari udal-esparrutik aurre egiteko estrategiak

Mirela Espiauk, Gasteizko Udaleko Berdintasun Zerbitzuko buruak, diskriminazioari buruzko hausnarketa egin du. Arazo soziala ez ezik, egiturazkoa eta politikoa ere badela adierazi du, eta botere-harreman desberdinekin eta administrazio publikoen zereginarekin duela zerikusia.

Diskriminazioari aurre egiteko hiru gako aipatu ditu:

- Espazio komunak sortzearen eta aniztasuna aitortzearen garrantzia.
- Herritartasun-eskubideen berdintasuna eta birbanaketa bultzatzen duten politikak sustatzea.
- Udal-zerbitzu guztiak interpelatzea.

Sonia Valle, Terrassako Udaleko Herritartasun eta Bizikidetzak Zerbitzuko buruak azaldu du nola txertatu zen intersektionalitatea Udalean. Politika publikoen eta desberdintasun-ardatzaren garrantzia nabarmendu ditu. Herritarren artean aniztasun handia dago, eta, beraz, politika publikoek eragin desberdina dute.

Udalaren arlokako egituraren garrantzia adierazi du; arlo horiek politika publikoei lotuta daude.

Arrazakeria-egoerak antzematearen garrantzia azpimarratu du, eta zeregin bat "zeharkakotasunarekin" lan egitea dela esan du (zinegotzietan eremuka egiten dute lan). Hor kokatzen da "Iguales Conectadas" (Berdinak Konektatuak) proiektua.

- Desparekotasunei sektoreka heltzea: ahalmenak eta mugak.
- Planifikatzeko, jarduteko eta udalerriko aniztasunean erantzun egokiagoak emateko modu berriak aurkitzeko beharra.
- Formula berritzaileak eta eraldatzaileak bilatzeari denbora eta ahaleginak eskaintzeko borondatea.

Hainbat ondorio eta ikaskuntza erakutsi dizkigu:

- Politika publikoetan intersektionalitatea aplikatzea egokia eta beharrezkoa da.
- Ikuspegi horren bideragarritasuna tokiko berdintasun-politikei aplikatuta: kudeaketa publiko efiziente eta eraginkorragoa.
- Udal-zerbitzuetako talde teknikoaren arteko konexio handiagoa.
- Arazoetatik abiatuta lan egitera gonbidatu gaitu, identitateetan zentratu beharrean.
- Tentsioak sor ditzake, praktikan jartzea babesten duen oinarri kontzeptual eta antolamenduzko egoki bat ez badago.

Gemma Martret, Berdintasun eta Hezkidetzako erreferenteak, Bartzelonako Hezkuntza Partzuergoa, "Escuelas por la igualdad y la diversidad" (Berdintasunaren eta aniztasunaren aldeko eskolak) proiektua azaldu du. Ikastetxe publiko eta itunpekoentzako prestakuntza-, aholkularitza- eta laguntza-programa bat da, Bartzelonako Udalaren 2014ko uztaileko gobernu-neurri batean oinarritua, abusuzko harremanak, indarkeria matxista, arraza-diskriminazioa eta dibertsitate funtzionalagatiko, sexualagatiko, genero-aniztasunagatiko, identitateagatiko, sexu-orientazioagatiko, orientazio etniko-kulturalagatiko eta erlijiosoagatiko diskriminazioa prebenitzeko programa bat ezartzeko, hiriko haur, lehen eta bigarren hezkuntzako hezkuntza-komunitateei zuzendua.

Proiektuaren eta egindako jardueren egitura azaldu du: Prestakuntza/hitzaldiak/jarduerak ikasgelan/tailerrak/webgunea. Horietatik, honako hauek nabarmentzen dira:

- Irakasleentzako prestakuntza. Batzuetan, irakasleak ez dira konturatzen jarrera eta portaera diskriminatzaileak hartzen ari direla, nahi gabe. Hezkuntza hiria eraldatzeko tresna bat da. Programan hiru ardatz lantzen dituzte: afektibo-sexuala, kulturala eta jatorrikoa, eta dibertsitate funtzionala.
- Ikasleentzako tailerrak. Ikasleekin ere lan egiten da, familiak jakinaren gainean jarrita.

Esteba Sola Navarro y **Jose Manuel Romero**, Iruñeko Udaltzaingoa, CLARA proiektua (Arrazakeriaren, Xenofobiaren eta gorroto-diskurtsoen aurkako ikaskuntzako tokiko komunitateak), honako hau nabarmenduz:

Europar Batasunaren proiektua da, hainbat erakunde publikok, GKEk eta elkartek parte hartzen dute bertan, eta bizipenetan oinarritutako ikaskuntza du ardatz. Poliziarekiko dagoen mesfidantza gainditzen saiatzen da.

Honako hauek dira proiektuaren helburuak:

- Elkarteen eta Iruñeko Udaltzaingoaren arteko harremanak estutzea eta elkarrekin lan egitea, parte-hartzaile guztien artean lankidetzako "sare" bat eraikiz.
- Iruñean gertatzen diren gorroto-istiluak ezagutu eta jasotzea.
- Prestakuntza eta sentsibilizazioa, batez ere Udaltzaingoan.
- Ezagutzak eta esperientziak trukitzea.
- Iruñeko gizartea sentsibilizatzea hirian dagoen aniztasun aberatsa ezagutaraztearen garrantziari buruz.

Prozesuaren barruan portaera-arauak eta errespetu-arauak ezarri ziren.

“Erakundeak gara, baina pertsonak gara”, baita eguneroko uneen eta pertsonen arteko kontaktuaren eta ezagutzaren garrantzia ere.

Produktu gisa, elkarteetan gorroto-istiluei buruzko inprimaki bat sortu zen, tipologiak eta kokapena ezartzeko.

Proiektuaren indarguneen artean:

- Ikaskuntza teorikoa zein dialogikoa ahalbidetzen ditu, gizarte-zientzien kontzeptuak ulertzeko oso beharrezkoa dena.
- Sistemak berak bultzatzen du pertsonen arteko eskualdatzea eta elkar ezagutza, sarean lan egin behar baitute, elkar "ukitzen" eta gainjartzen diren esparruetan.

Zailtasunen artean:

- Aurrez aurreko saio asko behar ditu aurrerapausoak emateko.
- Denbora asko eskatzen du, eta hori erronka bat da parte hartzen jarraitzeari begira.

Mahai-inguruaren bideoa eskuragarri hemen:

[https://www.youtube.com/watch?](https://www.youtube.com/watch?v=EsdXBODXrwE&list=PL3qy2ZNcrIYp92elUM3RztKR-DfL3T3un&index=5)

[v=EsdXBODXrwE&list=PL3qy2ZNcrIYp92elUM3RztKR-DfL3T3un&index=5](https://www.youtube.com/watch?v=EsdXBODXrwE&list=PL3qy2ZNcrIYp92elUM3RztKR-DfL3T3un&index=5)

Jardunaldiei amaiera emateko, **Silvia Pardesek** eskerrak eman dizkie hizlariei eta parte-hartzaileei bertan egoteagatik eta ekarpenak egiteagatik.